

Zaldibian, 2006ko ekainaren 30ean

Andres Urrutia euskaltzainburua (arratsaldean),
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita (goizez),
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga (goizez),
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarritton
eta Mikel Zalbide euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

dia, Moreda eta *Villabuena* herri-izenei buruz eta, proposamenarekin batera, zenbait herri-izenen argitasun-txostenak ere erantsi direla azaldu du. J. L. Lizundiak, Arabako Errioxako herri batzuek herri-izena berreskuratzeko egindako gestioen berri eman du. Oharrak uztailaren 10erako bidali behar direla gogorazi da.

2.3. Exonomastika: «Montenegro-ren euskal izena» aurkeztea. J. L. Lizundiak italierazko jatorria duen izen itzuli honen bilakaera eta Europako hizkuntzetan dituen aldaerak erakutsi eta euskararako proposatzen den formaren zergatia azaldu du. Hone-tan ere oharrak uztailaren 10erako bidali behar direla esan da.

2.4. Hiztegi Batua: D letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea. P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *diplomatiko-tik distraitu*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

14:00etan etena egin da bazkaltzera joateko. Arratsaldean, 16:15ean goizeko bilkurari segida eman zaio, eta Hiztegi Batuan *distritu-tik doktorego-tesi*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

Ezin etorriak eta ahalak: M. Azkaratek, ahala P. Goenagari; J. Irazuk, ahala X. Kintanari; H. Knörrek, ahala A. Iñigori; Andres Urrutiak, ahala X. Kintanari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Zaldibiako Kultura Etxean, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Aurreko bilkuraren akta, oharrik gabe, ontzat eman da.

2. Hizkuntza gaiak

2.1. Onomastika «Arabako herri-izendegia: 3. zerrenda» onartzea. A. Iñigok, ez dela ohar idatzirik heldu adierazi du. Zerrenda onaturik gelditu da.

2.2. Onomastika «Arabako herri-izendegia: 4. zerrenda» aurkeztea. M. Gorrotxategik ohar batzuk egin ditu *Guar-*

3. Esku artekoak

3.1. Barne-erregelak. Barne-erregelen 7. eta 10. atalen testu onartua, J. L. Lizundiak eta P. Goenagak adostasunez egokiturikoa, batzar karpetan sarturik banatu da.

3.2. Dieten atxikipenak. Bizkaiko Foru Diputazioaren aginduekin bat, hemendik aurrera euskaltzainei dietengatik helaraziko zaizkien ordainketetan egin beharreko atxikipenak direla eta, A. Urrutiak eta J. J. Zearretak horren azalpen zehatza eman dute.

3.3. Urgazleei diplomak banatzea. Uztailaren 13an, osteguna, 17:00etan, Euskaltzaindiaren egoitzan urgazleei diplomak emanen zaizkiela jakinarazi du Euskaltzainburuak, eta hor segitu beharreko prozedura azaldu ere bai. Ageriko bilkura berezia denez, euskaltzain oso guztiak gonbidaturik daude.

3.4. Uztaileko bileraz. Uztailaren 20an, osteguna, Osoko Batzarra, Antzuolan, arratsaldean izanen dela gogorarazi da, biharamun goizean A. Toledoren sarrera-ekitaldia izango delako.

3.5. Ana Toledoren sarrera-hitzaldia. Uztailaren 21ean, ostirala, goizean Antzuolako herrian Ana Toledoren sarrera-hitzaldia izango dela gogorarazi da.

3.6. Nafarroako Gobernuarekiko protokoloa. Nafarroako Gobernuarekin 2006ko Protokoloa ekainaren 20an sinatu dela jakinarazi da.

4. Azken ordukoak

4.1. Arautegiaren aldaketa onartua. Madrileko Gobernuak onarturiko Arautegiaren berri eman du A. Urrutia euskaltzainburuak. Halere, oraindik ez da BOEn argitaratu eta, beraz, hor agertu arte, ez dela indarrean egonen azaldu du.

4.2. Banaturiko liburuak. Bi liburuxka hauek eman zaizkie euskaltzainei: *Aita Damaso Intzako*a (Bidegileak bilduman, R. M. Pagolak egina) eta *Euskaltzaindiaren aurkitegia*.

Bilera arratsaldeko 18:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

Zaldibian, 2006ko ekainaren 30ean.

Ekainaren 30ean, arratsaldeko 6:30etan, Zaldibiako Udalarekin batera, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du herriko Antzokian, Frantzisko Ignazio Lardizabalen omenez.

Bilkura hasi baino lehen, Lardizabalen jaiotetxean, *Zubiaurre*-n, harrizko plaka bat jarri da agerian. Honela dio plakak: *Frantzisko Ignazio Lardizabalen jaiotzaren (1806-1855) bigarren mendeurrenean. Zaldibia, 2006-VI-30.*

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Bernardo Atxaga, Pierre Charritton, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Ana Toledo eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak.
- Jose Antonio Aduriz, Mikel Atxaga, Salvador Garmendia, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak eta, Amaia Okariz Euskaltzaindiko Prentsa arduraduna.

Patxi Aierbe Zaldibiako alkateak ongietorria eman dio Euskaltzaindiari eta bertaratu diren herritarrei, eta F. Lardizabalen lana gogora ekarri du. Ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio Alkateari Euskaltzaindiari egin zaion harrerara eta emandako laguntzagatik, eta hizlari biei hitza eman die: Mikel Zalbide eta Beñat Oihartzabali.

Mikel Zalbide: *Lardizabalen lanak bere garaiko euskalgintzaren barnean*

Gramatikaren edukia, eta bere azterketa tekniko-linguistikoa alde batera utziaz, egilearen, obraren eta gizarte-giroaren zertzeladak adierazi ditu Mikel Zalbidek prestatu duen txostenak.

Egilearen biografia modukoa egiteaz gainera, honako hiru puntuotan zentratu da Mikel Zalbide:

- Zergatik, zertarako eta norentzat egin zen Gramática Vascongada hori.
- Liburuaren prestaerak izandako ezaugarriak: sorkuntza, onespenez-azterketa, argitalpena eta ordainketa.
- Lanaren kokapena. XIX. mendearen erdialdeko Gipuzkoan: euskara-erdaren gorabeherak; Lardizabalen lana eta orduko euskalgintza, perspektiba soziokulturalean.

Beñat Oihartzabal: *Lardizabalen gramatikaren iturri, ezaugarri eta helburuak*

Beñat Oihartzabalen hitzaldian Lardizabalen gramatikaren (1856) iturriak eta helburuak bereziki aipatu dira. Iturriak ezagunak dira, alde batetik, Larramendiren *El imposible vencido* (1729), ehun urte baino lehenago egina, eta Zavalaren *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino* (1848), zortzi urte lehenago argitaratua. Astarloaren gramatika lan garrantzikoena, eta Añibarrena, orduan ez oraino argitaratuak, ez zituen ezagutzen Lardizabalek, ez eta frantsesez aitzinagoko hamarkadetan plazaratu ziren Lécluse (1826), Darrigol (1827) eta Abbadie & Chahorenak (1836) ere. Horregatik, Oihartzalaren ustez, garaiko irizpideen arabera kontsideraturik ere, orduko euskalaritza orokorra baino zerbait gibelago agertzen zaigu gramatika hori, deklinabi-deari dagozkion atalean ezin argikiago ageri den bezala.

Aldundiak galdeginik idatzi zuen gramatika, Gipuzkoako eskoletan banatua izan zedin. Baina, Lardizabalen gramatika ez da Gipuzkoan XIX. mendearen erdialde hartan, egoera diglosiko klasikoari jarraikirik baliatzen ziren Astigarragaren (1825) eta Iturriagaren (1841) ikasliburuen parekoa, edo Iparraldean Hiriartek (1840) eta Archuk (1852) egin zituztenen antzekoa. Oihartzabalen esanetan, Aldundiko idazkariak esan zuenez, euskara desagertzeko puntuan izanik, monumentu gisa egin nahi izan omen zen gramatika, itzali ondoan ere, galdu hizkuntzaren oroitzapena atxiki zezaten gipuzkoarrek. Oihartzabalen iritziz, lehen aldiz agertzen da modu horretan adierazia euskararen heriotzaren gaia.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria